

Aurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Urnietar ezaguna
joan zen astelehenean
hil zen, 88 urte zituela

2017ko otsailaren 24a, 513 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

PRAIXKU BELAUNTZARAN ZENDU DA

Ostegunean hasi eta igandera arte inauteriak Andoainen

Andoaingo Udalak festak normaltasunean igarotzeko dei egin du.

Jaiak ahalik eta ondoen igarotzeko deia egin du Andoaingo Udalak, beti ere errespetuzko giroan: "Euskal Herriko hainbat txokotan azken aldian gertatutako eraso sexistek tokirik ez dutela gogorarazi nahi du gobernu taldeak; ez jaietan, ezta egunerokoan ere. Hortaz, jaiak errespetuan oinarrituta igarotzeko deia egiten dugu".

Aurreko asteburuan kaldere-roen irteera bikoitza izan zen, inauteri festak iragarritz.

[AGENDA, 12. ORRIALDEAK]



Banaka edo koadrilaka, larunbatean andoaindar ugari mozorrotu eta kalera irtengo da.

Bizikidetzak jardunaldiak Urnietan



■ Otsailak 23, osteguna
19:00 Lekaio
Pako Etxeberria, tortura hipzide hartuta.

■ Otsailak 25, larunbata
19:00 Sarobe
"La mirada del otro" antzezlan. Ondoren solasaldia.

[URNIETA, 2-4. ORRIALDEAK]

Ipuin kutsuko inauteriak Urnietan

Egun osoko ospakizunak, larunbat honetan Urnietan.

Poxta Zahar gazte taldeak, Salesiar ikastetxek eta beste zenbait elkartet inauteria girotuko dute, larunbat honetan. Inauterizale ez direnek adi egon beharko dute. Idiazabal kalea arrataldetik gauera bitarte itxita egongo baita. Eta hori dela eta bus geltoki bakarra egingo da martxan, Denda Berri zaharren egoitzaren parekoa.

[AGENDA, 12. ORRIALDEAK]



2015ean Teoren ipuinak gogoan hartuta mozorrotu zen gazte koadrila taldea.

- Mozorro festa
Otsailak 25, larunbata:
12:00 Trikipoteoa Idiazabal kalean hasita.
- 14:30 Bazkaria frontoian. Ondoren bertsolariak eta Lear taldea.
- 16:00 Salesiarretatik jaitsiera San Joan plazara.
- 16:30 Talde guztien topaketa plazan.
- 16:45 Plazatik Idiazabal kalea desfilearen hasiera.
- 18:00-20:30 Salesiarren jaialdia ikastetxean.
- 20:00 Mozorro lehiaketa Zubitxo plazan.



Urnietako ikastolaren 50. urteurrenko aldizkaria udazkenean argitaratu zuten eta joan zen astean historia laburbiltzen duten berrehun argazki ikusgai ipini zituzten Lekaiko areto nagusian.

[URNIETA, 10. ORRIALDEAK]



**JOXINIXIO
PIZKUNDE
ZAPUZTUA**

ANDOAINGO
BERTSOLARITZA
XX. MENDEAN

**Xabier Lasa Bergarak idatzia,
eta Manuel Larramendi Kultur
Bazkunak argitaratutako
liburuaren AURKEZPENA**

Eguna: Martxoak I, asteazkena
Ordua: 19:00
Lekua: Bastero Kulturunea



ELKARRIZKETA

Karmele Urbistondo: “Torturatua izan nintzen”

Ostegun honetan Pako Etxeberria forentseak 1960tik 2013ra bitartean Euskadin izandako torturaren inguruan egindako ikerketari buruzko hitzaldia eskainiko du. Giza eskubideak urratzen diren erre-

alitate arantzatsu hori Urnietara ekarrita, Karmele Urbistondok bere azalean pairatu ditu torturak. Lagun min zuen Gurutze Iantzi alboan zuen 1993an, Guardia Zibilaren eskuetan hil zenean.

Euskal Memoriaren erakunde ari zara lanean, Karmele. Erakunde horren zeregina zein den ez dakienarentzat, azalduko al zenuke zer den Euskal Memoria?

Karmele Urbistondo. 2009an sortu zen, herri honen memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin. Horretan ari da geroztik eta ni duela bi urte hasi nintzen bertan lanean. 1936ko Gerraz gain, historia garaikidean ere lanean ari gara eta zentzu horretan lan ildoetako bat torturaren ikerketa da. Lan eremua Euskal Herri osoa da.

**Torturaren ikerketa bereziki azken urte-
etako lan ildo da?**

K.U. Lantaldean ardurak banatuta ditugu, eta horietako batzuk torturaren gaiari heldu diote. Torturaren azterketak 22.000 atxiloketa biltzen dituen datu-base bat du abiapuntu, 1960tik hona izan diren atxiloketak, hain zuzen. Ziurrenik atxiloketa gehiago izango dira, zeren eta Frankismo garaian asko eta asko behar bezala dokumentatu gabe daude. Atxiloketa horien baitan, torturatua izan dela adierazten duenarekin harremanetan jartzen gara. Kasu bakoitzeko txosten bana egiten dugu, nazioarteko protokoloek balioesteko prozedura erabiliz.

Bizpahiru urte dira Kriminologia Euskal Institutuarekin elkarlanean ari gara tortura kasuak ikertzeko.

Institutu horretan Pako Etxeberria kriminologoa ari da lanean, eta berak hain zuzen torturari buruzko hitzaldia eskainiko du ostegun honetan Urnietan...

K.U. Kriminologia Euskal Institutua bere kabuz ere tortura kasuak biltzen ari da, eta dagoeneko 2016ko ekaineko jardunaldi batzuetan Etxeberriak tortura kasuei buruzko ikerketaren lehen datuak eskaini zituen. Bizikidetzaren jardunaldien baitan gai hori hizpide izango du, beraz, Urnietan.



Karmele Urbistondo urnietarra Euskal Memoria erakunde ari da lanean.

Zerorrek zer nolako garrantzia ematen diotzu Pako Etxeberriaren lanari?

K.U. Sekulako balioa duela esango nuke. Ibilbide luzea egin du, eta uste dut Euskal Herrian inork ezin duela bere profesionaltasuna auzitan jarri. Arlo profesionalan eta humanoan eredu garria dela esango nuke. Tinko heldu dio bere lanari eta torturarena argitara atera behar den errealitatea dela oso garbi dauka. Ekarpen handia egiten ari da, alor horretan. Ziurrenik, eta gordin esanda, Etxeberriaren parte hartzerik gabe euskal auzian torturaren gaia oso esparru mugatua geratuko litzateke. Bere esku hartzeak beste maila bat, beste kategoria bat ematen dio auziari.

“Pako Etxeberriaren parte hartzerik gabe torturaren gaia oso esparru mugatua geratuko litzateke, euskal auzian. Arlo profesionalan eta humanoan eredu garria dela esango nuke”

**Ekzer abertzaleko kidea zara. Azken urte-
etan ekzer abertzalearen baitan egon den
eztabaida eta hein batean zatiketaren
aurrean, bat al zatoz Sortuk edota EH Bil-
duk hartu duten bidearekin?**

K.U. Erabat. Bizikidetzaren landu eta sustatu egin behar da. Autokritika egiteko garaian, irakurketa kritikoa egiteko ga-

raian erabat ados nago EH Bilduk eta Sortuk hartutako bidearekin eta gainera bide horretan sakontzeko nire esku dagoen guztia egingo dut.

Iritsi garen garai honetan, kolektibo modura gertatu denaren irakurketa egin behar genuke bereziki berriro errepika ez dadin. Gertatu den guztia berriro gerta ez dadin berme nagusia elkarriketa da. Gertatu dena guztia mahai gainean jarri eta soseguz hitz egiteko garaian gaude.

Zeren eta hemen alde bati sekulako eskaerak egiten zaizkio etika ezaz, autokritikaz jokatu ez izanaz, barkamena eskatzera derrigortuz eta abar. Eta, al-diz, torturatuak izan garen hori guztia ukatu egiten zaigu. Torturak egileak ditu, eta euren atzean erantzule batzuk. Diseinu bat eduki du, bereziki Espainiako gobernuaren aldetik. Sistematikoa izan da.

Horren aurrean, torturatuak nork eskatu behar dizkie kontuak? Eta torturatuak lanean jarri zituen agintari nork eskatu behar dizkie kontuak?

Tortura salaketak orain oso gutxi arte egin dira...

K.U. Halaxe da. Pixkanaka apaltzen ari dela ikus daiteke, ez erabat desagertzen.

**Urnietan oso kasu esanguratsua dugu, Gurutze Iantziarena. 1993an hainbat herri-
kiderekin batera atxilotu zuten, tartean
baita zu zeu ere. Komisaldegian inkomun-
ikazio egoeran eta tortura zantzuekin hil
zen. Eusko Jaurlaritzak 2015ean eginda-
ko txostenean ez da eskubide osoko bik-
timatzat hartzen “egiaztatze eta ikerke-
ta lan handiagora behar duen kasu” dela
argudiatuz. Hori horrela irakurri zenuen-
ean zer pentsatu zenuen?**

K.U. Lehenengo erreakzioa txostenaren egilei deitu eta hor adierazten dena egia ez dela esatea izan zen. Gurutze-
ren heriotzak ikerketa gehiago behar



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ELKARRIZKETA

duela benetan uste badute, hori horrela izateko zein bitarteko jarri dituzten jakin nahi dut. Nik dakidala Gurutzeren heriotza ikertzeko Urnietako Udalak edota Eusko Jaurlaritzak ez dute batere bitartekorik jarri. 1993ko irailean atxilotu zituzten hogeitaz hamar lagunetik gorako norbaitekin egon al dira? Banan bana hitz egin dezakete gertaera hura pairatu zutenekin eta orduan jakingo dute Gurutze bihotzekoak jota edota beste modu batez hil zen. Gurutze Iantzi torturapean hil zuten. Are gehiago, egun haietan Tres Cantoseko komisaldegian gertatu zena Urnietako udaletxeko ordezkari batek nabardura eta xehetasun guztiakin daki, nik neronek gutun bidez kontaktuta.

Gurutzeren ama berriki hil da, eta bere alaba torturapean hil zuten aitortza hori jaso gabe joan da. Ados nago euskal gatazkak drama asko sortu dituen baieztapenarekin, baina ez dezagun ahaztu tortura jasan duen pertsona bakoitzaren atzean ere beste drama bat dagoela.

Maribel Vaquero zinegotziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendariak aurreko Aiurri adierazi zuen Gurutze Iantzi aitortza merezi duela herrian...

K.U. Badela garaia uste dut nik. 2018ko irailean Gurutze Iantzi hil zutela 25 urte beteko dira. Gurutze Iantzi ez ezik, bere senarra ere atxilotu zuten. Egundak erdi inkomunikaturik zegoela ziegatik atera eta libre zegoela esan zioten, noiz eta bere emaztearen gorpua han bertan hilotz zenean. Muturreko egoera Gurutzerena da, baina egun haietan hogeitik gora lagun atxilotu zituzten. Bakoitzak gertaera hari buruz zer esan handia dauka, noiz entzungo dituzte lekukotza horiek?

Zurea lekukotza zuzena da: Tortura zure azalean pairatu zenuen...

K.U. Galdeketa amaigabea, poltsa jarri, kolpeak..., sekulakoa izan zen hura. Leku arrotz batean zaude, hamar hamabost guardia zibiletz inguratut. Hori bizi ez duenari ezinezkoa zaio behar bezala irudikatzea. Kalabozoak horrelako tokietan elkarren ondoan daude, baina ez dakigu nor dagoen ondoan. Momentu batean, nire ondoan pertsona bat jarri zuten eta *"no os quiero oir hablar"* esan zigun norbaitek, mehatxatzearekin batera. Hasiera batean ez dakizu nor den, baina halako presiopean eta gizakiak garenaz, denbora igarotzen da eta ondokorekin komunikatzen zara. Nire ondoan jarri zutena Gurutze Iantziren senarra zen. Harekin hizketan hasi eta Gurutze etxean zegoela adierazi zidan. Ordurako, ordea, kalabozoek duten atearen behaldekoi irekieran ibilian-ibilian ikusi nuen atxilotuetakoa bat Gurutze Iantzi zela. Jakin banekien hark defektu fisikoa zuen, ibiltzean nabarmena eta ezaguna zena.

Egun hartan Tres Cantoseko komisaldegian geunden guztiok une jakin bat gogoan dugu. Denok. Oihu ikaragarrien artean "ez nazazue gehiago jo,



Udalbiltza auzian atxilotu, espetxeratu eta neurri zorrotzen pean izan eta gero 2010ean absolutzioa jaso zuen.

"Gurutze Iantzi eskuetatik joan egin zitzaizen; Gurutzeren bihotza betiko geratu egin zen"

mesedez", "ez nazazue gehiago jo, mesedez" esanez norbait entzun genuen, eta, handik gutxira, isiltasuna etorri zen. Erabatekoa. Kolpeak eta bainera saioak, bortizkeria hori guztia amaitu da eta hainbat ordu igarota Auzitegi Nazionalera gindoazela adierazi ziguten. Garzon epailearen aurrean deklaratu genuen eta handik ateratzean, abokatuak albiste txarra eman behar zidala adierazi zidan. *"Ez dakit zer den notizi txar hori, baina berdin dit. Ez dut ziega horretara itzuli nahi, kartzelara joateak berdin dit"* erantzun nion. Ezer okerragorik egon ezin zitekeela uste nuen une horietan. Eta orduan esan zidan Gurutze Iantzi hil zela. Une horretantxe lotu nuen dena, galdeketa, oihuak eta isiltasuna. Gurutze Iantzi eskuetatik joan egin zitzaizen; Gurutzeren bihotza betiko geratu egin zen.

Deklaratu ostean kartzelara joan zinen...

K.U. Bai. Ia bost urte eman nituen, ETA erakundearekin kolaboratu izanaren akusaziopean. Tres Cantoseko komisaldegian egon ginen bitartean deklarazioa

sinatu arazi zidaten. Ez nuen beste aukerarik, sinatzen ez banuen berriro bueltatuko nintzela adierazi zidaten eta.

Garzon epailearen aurrean, ordea, inkomunikazio egoeran bizi izandakoa azaldu al zenuen?

K.U. Bai. Burua behera begira egon zen, aurpegira begiratzeko gaitasunik gabe. Idazkaria alboan zuen dena idazten, eta hark entzun bakarrik egiten zuen. Karmen Galdeano abokatua alboan izan nuen, baina ezin izan nuen berarekin hitz erdirik egin. Ez zidaten utzi.

Biktima sentitzen al zara?

K.U. Ez daukat oso argi hori, beharbada hitzaren adiera asko bihurritu eta manipulatuta delako. "Torturatua izan nintzen" adieraztea nahiago izaten dut. Lehenengo aldiz 1993an, eta bigarren 2005an ere bai. Bitxia da, zeren eta lehenengo aldiko tortura fisikoa gogoan dudana bezala, bigarren aldian Udaltzinta kasuan atxilotu nindutenean, Polizia Nazionalak ez zidan eskurik gainean jarri baina, aldiz, psikologikoki txikituta utzi ninduen. Bigarren aldi hartan ere kartzelara sartu ninduten.

2003an Udaltzinta auziaren baitan atxilotu eta espetxealdia igarota, 2010eko


"Biktima baino gehiago 'Torturatua izan nintzen' adieraztea nahia-go izaten dut. Lehenengo alditik tortura fisikoa gogoan dudana bezala, bigarren aldian Polizia Nazionalak psikologikoki txikituta utzi ninduen"

epailetan absolutu zintuzten. Gatazkaren beste ertz bat horixe izan daiteke, zigor politikoa...

K.U. Hogeitaka pertsona gaude sartuta, eta ia guztiak kartzelan egon ginen. Nire kasuan, Udaltzinta ari nintzen Urnietako Udal zinegotzi nintzela. Norbaitek gaur hartan zerbaite esan zezakeela uste dut. Gartzelan sartu ninduten 2003an eta epaiketa 2010ean izan zen. Sei urtez jarraian, 2004tik 2010era, bi eguneha behin epailearen aurrean sinatu behar izan nuen. 30.000 euroko fidantziari, bankuari kreditua eskatuta aurre egin, eta ordaindutakotik ezer berreskuratu ez. Epaiketa iritsi eta absolutzioa. Denbora horretan guztian jasotako kaltea nola erreparatzen da? Eta ez naiz alor ekonomikoaz bakarrik ari. Areago noa. Bizitza bera baldintzatzeaz ari naiz. Eta horren kalteaz. Haur bat edukiko dugu? Eta epailetan kondenatzen banaute? Etxe bat erosiko dugu? Kontuak blokeatuta ditut. Kanpora joango gara? Joan Espainiako edozein komisaldegira eta kontatu zu bi eguneha behin sinatu behar duzula... Nork erreparatuko du hori guztia? Eta horrelako kasuak azken hamarkadatan milaka dira. Horri buruz noizbait, nonbait hitz egin beharko dugu. Errealitate hori ere hor dago. Gatazkaren alde batean gertatu dena egunero ateratzen da medioetan, eta beste aldean gertatu diren drama asko isilarazita daude.

Bizikidetzaren alorrean zer nolako Urnietara eraiki nahiko zenuke etorkizunera begira?

K.U. Bizikidetzaren sustatzeko prozesuak abiaraztea interesgarria dela deritzot. Maila politikoan zein norbanakoen mailan. Elkarren artean entzuteko foroak beharrezkoak dira, heldutasunez eta soseguz gertatu den guztiaz hitz egin ahal izateko. Irakurketa kritiko bat egin beharko da, beti ere aurrera begira jarritz. Biolentzia asko egon da, alde askotarikoa. Bakoitzak bere errelatoa, bere egia dauka. Uste dut egia horien guztien mosaikoa eraikitzea ahalbidetu behar dugula.



Txotx'17

R. ZABALA 943 690 774 Aduna
 LARRE-GAIN 943 555 846 Ereñozu-Hernani
 OIANUME 943 556 683 Urnieta
 GAZTAÑAGA 943 591 968 Andoain
 SARASOLA 943 690 283 Asteasu

2017ko egutegi gehiago nahi? deitu: 943 300 732

JARDUNALDIAK

Iker Uson, Baketik erakundeko koordinatzailea

Baketik erakundeko koordinatzailea da eta tokian tokiko baketze prozesuak oso gertutik jarraitzen ditu. Urnietan lehenbizi eta Andoainen ondoren, bi herrietako Udal ordezkariekin batera, “Biziki-

detza lantzen” egitasmoan parte hartze zuzena izaten ari da. Herri bakoitzean egin diren lorpenei eutsi nahi dio, eskualdean bizi diren antzeko prozesuak bereziki txalotuz.

Urnietan herrian bizikidetzak lantzen ari direla urte batzuk badira. Zure esperientziatik, eta beste herrietako prozesuak ezagutzen dituzun aldetik, nola baloratzen duzu Urnietan egiten ari direna?

Iker Uson. Urnietako herriaren tamaina eta baliabideak ikusita, xume hasi ziren baina dagoeneko ibilbide luzea osatzen ari dira. Positiboa da hori. Egia da aurtengo jardunaldien aurkezpen ekitaldian alderdi sozialista falta zela, baina Baketik erakundetik erronka nagusia horixe dugu orain, berriro ere ordezkariak duten hiru alderdiak prozesuan txertatzea.

Horrelako egoerak ohikoak al dira beste herrietan?

I.U. Bai, halaxe izaten da. Eta ez dira beti publiko egiten. Batzuetan alderdiek, tokian tokiko prozesuak daramaten abiaduraren arabera, prozesua azkartu edo mantsotu egin nahi dute eta tarteka talka izaten da.

Aurtengo ekitaldiak azalduko al zenituzke?

I.U. Torturak espreski ez dira orain arte Urnietako jardunaldietan aztertu, eta bistakoa da giza eskubideen urraketei dagokionez hor urraketa nabaria dagoela. Beste biolentzia batzuekin alderatuta itzalean geratu da beharbada, eta ikerketa ofizialei dagokionez hutsunea dago. Pako Etxeberria eta bere lantaldea ikerketa handi samarra egiten ari dira eta horren berri ematera dator Urnietako Lekaiora. Eusko Jaur-laritzarentzat egindako txostena publikoa da, udako ikastaroetan aurkeztu zen eta egindako hori sozializatzea egokia zela iruditu zitzaigun. Urnietarek ikerketaren inguruan galderak egiteko aukera izango dute.

Bigarren saioa antzezlanak izango da. Filmak eskaini edo-



Iker Uson Baketik erakundeko koordinatzailea.

ta hitzaldiak antolatuta izan diren bezala, formatu ezberdinekin proba egitea erabaki dugu. Metodologia aldatu eta larunbat arratsaldean antzezlanak eskainiko dugu, kontuan hartuta Urnietan hori egiteko aukera paregabea dagoela. Gatazkaren biktima eta biktimarioaren arteko erlazioa lantzen da an-

“Hitzaldia edota antzezlanak amaituta, ikusleek solaskideei galderak egiteko aukera izango dute”

tzezlanean, Langraitzeko esperientzian oinarrituta. Topaketa horiek antzerkira eraman di-

tuzte eta horixe da larunbatean ikusi ahal izango dena. Antzezlanak ikusleek gogoeta sustatuko du, hori ziur.

Antzezlanak eta gero, Iosu Elespe lasarteak biktima modura eta Eduardo Santos bitartekari lanetan aritutakoak bere lekukotza eskainiko dute. Bi hauek euren esperientzia erreala azalduko dute. Eta kasu honetan ere ikusleek solaskideekin hitz egiteko aukera izango dute.

Urnietan bezala, Andoainen ere bizikidetzak lantzen ari dira. Andoaino herriari dagokionez, nola ikusten ari zara orain arte egindakoa?

I.U. Aurten bi urrats nagusi eman direla nabarmendu behar da. Batetik memoriaren egunerako idatzia adostu da, eta aurten gainera edukiz aberastu dute. Kanpotik ikusita erraza dirudi, baina kosta egiten da bakoitzak hitz edo adiera batean indar berezia egin nahi izaten duelako.

Bigarrenik, urte hasieran zine zikloa martxan jarri dute. Beharbada dokumental horiek eskaintzak ez dute bizikidetzak erabat aldatuko, baina sinbolikoki ordezkariak duten alder-

“Urnietan eta Andoainen bezala, Hernanin edota Lasarte-Orian antzeko prozesuak egiten ari dira eta hori oso positiboa da”

di guztiek egitasmoan bat egiteak indar handia du. Adostasunetik egindako egitaraua da. Dagoeneko, gainera, publikoa da Andoaino udaletxean bizikidetzak lantzen ari direla zeren eta denbora tarte batean prozesu hori modu diskretoan eman da. Sufrimendu handia izan da Andoainen, eta ikuspegiak oso ezberdinak izango dira, baina gutxienez guztiak mahai berean eserita daude eta horri garrantzia handia eman beharko genioke.

Ezin dira emaitzak berehalakoan lortu, baina aipagarri iruditzen zait Beterri-Buruntza eskualdea. Urnietan eta Andoainen bezala, Hernanin edota Lasarte-Orian antzeko prozesuak egiten ari dira eta hori oso baikorra da. Abiadura mantsotan doazela dirudi, baina esan dezaket denak ere onena ematen ari direla. Azken hamarkadako inertziaren kontra ari dira, eta ez da gutxi.

BAKE ETA BIZIKIDETZA JARDUNALDIEN AURKEZPENA



ASTE HONETAN URNIETAN

■ Otsailak 23, osteguna

19:00 Lekaio

Hitzaldia:

Pako Etxeberriaren hitzaldia. 1960tik 2013ra bitartean Euskadin izandako torturaren inguruan egindako ikerketa.

■ Otsailak 25, larunbata

19:00 Sarobe

Antzerkia:

“La mirada del otro”. Gela bat kartzelan. Hiru lagun: bitartekaria, biktima eta kaltegilea.

Iñistorrak “Urnietar Prestu” izendatu zuen 2009an

Praixku Belauntzaran enterratzailea zendu da

Praixku Belauntzaran San Sebastian 1929ko urtarrilaren 20an jaio zen Ergoien auzoko Arizmendi baserrian eta joan zen astelehenean hil zen, 88 urte zituela. Hamar anai-arrebetatik zaharrena zen eta 1961az geroztik Monika Oterminekin ezkontuta zegoen.

Urte luzez herriaren alde egindako lana eskertu nahi izan zioten Iñistorra elkarteok, 2009ko Sanmielelan. Ez zen bizi zenean jaso zuen omenaldi bakarra izan. Aurretik ere Udalak, jubilatuek, bolariak eta Santakruz elkarteak omendu baitzuten. Aiurri 2009an eskainitako elkarrizketan ondotoxo laburbiltzen da bere bizitza.

Hemeroteka

Aiurri | 2009.IX.25

Nolakoa zen Praixku haurtzarozan?

Praixku Belauntzaran: Ume oso mugitua nintzela esan izan dide. Arizmendik hiru bizitza zituen eta horietako batean bizi zen Roxa Urrillunek zaintzen ninduen. Zazpi urterekin Xoxokako eskolara joaten hasi nintzen. Aurreneko maistra Angela Arrue izan genuen, gerra aurretik. Gerra garaian eskola txikitu egin zuten eta urte bat egon ginen eskolarik gabe.

Baserrian lanean aritutakoa izango zara...

P.B. Gutxi. Umeak ginela bi morroi baziren gure etxean, Antsoko Markox eta Manuel Orkaizagirre “Makis”. Gerora ere aitak esaten zidan baserrian norbait behar zuela, baina baserrirako gogorik batere ez nuen nik, igeltserotza edo harritzatza nituen gustukoak.

Non hasi zinen lanean?

P.B. Buruntzako harrobirako bidea egite lanetan hasi nintzen.



Praixku Belauntzaran San Sebastian.

Gero batean eta bestean lan frankotan ibilitakoa naiz, besteak beste Martuteneko kartzelan ere aritu nintzen, gauetz azulejoa jartzen. Lo falta izaten genuen, baina afaria eta eguneko doblea ordaintzen ziguten. Egunez obran lanean aritu ondoren joaten ginen hara.

Noiz hasi zinen Udalerako lanean?

P.B. Saturnino Larburu alkate zela lehenengo “txapuzak” egiten hasi nintzen. Orduan Urnietako Udalak langile bakarra zuen, Miel Aizpitarre. Gero, Elorriyako Angel Olasagirre sartu zen. Horrela aritu nintzen Ramon Atxaga alkate jarri zen arte.

Orduan, Pedro Goikoetxeak elektrikari lanak egiteari utzi eta Julian Ramos hartu zuten, eta harekin jarri ninduten lanean. Eta denetik egin izan dut.

Herriko hodiak ondoena ezagutzen dituen omen zara...

P.B. Urnietako eta Urnietarena zen Lasarteko hodiak ederki ezagutzen ditut. Ni zangan sartuta ordu askoan lan egindakoa naiz, eta orduan plano gutxi erabiltzen zen. Jubilatuta ondoren ere hodia nondik pasatzen ote den galdezka deitu izan dide.

Ehorzle edo enterratzaile moduan ere ezaguna izan zinen.

P.B. Juan Angel Izagirrerri launduz hasi nintzen, eta hark utzitakoan ni geratu nintzen, 29 urtetan egin nuen lan hori. Orduan nitxorik ez zen eta lurrean zuloa egin eta sartzen ginituen gorpuk.

Gaurko lana erraza da ordukoaren aldean. Norbait istripuz hildakoa edo bere buruaz beste egindakoa epailearekin batera bertara joan behar izaten nuen, hildakoa jantzi, kaxan sartu eta abar egitera.

Zuk esana da bizirik daudenean ematen dizutela beldurrik gehien.

P.B. Bai, eta une gogorak bizitzea egokitu izan zitzaidan, ama lurperatu beharra, “denok horrelaxe joan beharko dugu” pentsatu eta aurrera. Burua trenari botatakoren gorpuzkinak bildu beharra eta horrelakoak ere egin izan ditut. Baina hildakoa ikusteak ez zidan inpresio berezirik egiten.

Bolari moduan ezaguna zinen...

P.B. Ume ginela Bentan ibiltzen ziren bola jokoan. Gure aita ere askotan izaten zen bertan. Apustuak egiten zituzten. Etxetik brila soinu entzuten nuenean, bertara joan eta brila bere tokian jartzen aritzen nintzen, eta bostekoa botatzean, bost xentimoko propina ematen zidaten, eta ni pozik. Orduan bolatokiak baziren Bentan, Xoxokan, Matxonean, Elorriyan, Urbanetan, Joxinixionean... Duela urte gutxi arte ibili izan naiz txapelketa ugaritan parte hartuaz eta tardeka irabaziz.

Bestela, zein dira zure afizioak?

P.B. Pilota, toka eta ehiza. Oilagorretan ibiltzen nintzen gustura.

Haur ikuskizuna igande honetan Saroben



Gorka Ganso eta Txefo Rodriguez dira “Kaput” antzezlaneko aktoreak.

Bost urtetik gorako haurrei zuzenduriko familia ikuskizun umoretsua ikusgai izango da igande honetan Saroben. Gorka Ganso eta Txefo Rodriguez aktoreek, hitzik erabili gabe, bi zororen papearen komikotasun une ugari eskainiko dituzte.

Sinopsiak zera dio: “Kaput barretik eta optimismotik gerren drama unibertsalera eta bere zeharkako efektuetara hurbiltzen gaituen komedia hunkigarri, urratzaile eta zentzugabekoa da”.

Otsailak 26, igandea. 17:30.
Sarobe. 3 euro.

Gurasoentzako txoko berria Udal liburutegian

Azken hamarkadatan burutu-tako ikerketa zientifikoek familia testuinguruak pertsonen garapen psikologikoan duen garrantziaren berri ematen dute. Gurasotasuna hazkuntza eta hezkuntza ulertzeko modu bat da, eta haurren beharrezan errespetuan eta garapena bultzatzen duten ekintzetan oinarritzen da, hala nola, atxikimendua indartzea, jolasaren bitarteko elkarreragina, gatazkarik gabeko komunikazioa... Urnietako Udalak liburutegian txoko bat eskaini dio gurasotasunari. Dagoeneko txoko horretan gurasoek haurren heziketan lagungarri izango zaizkien liburuak eskuragarri izango dituzte.

Hitzaldia Presentacion de Maria ikastetxean

0-3 urteko haurren gurasoei zuzenduta, Mireia Centeno psikologoa eta psikopedagogoa hitzaldia eskainiko du “Nire haurra ezagutz” izenburupean. Hitzaldia ikastetxean bertan izango da eta saioak iraun bitartean zaintza zerbitzua eskainiko

dute. Autoestima, portaera, mugak, frustrazioa edota gurasoen papera izango dira aztergai nagusiak. Interesatuek izena eman behar dute aldez aurretik, ikastetxearen webgunean edota ikastetxeko idazkaritzan.

Martxoak 4, larunbata. 10:00.

Praixku BELAUNTZARAN SAN SEBASTIAN jauna

Urnietako Udal langilea, “Urnietar prestu” izendatua 2009an.

Otsailaren 20an hil zen, 88 urte zituela.



*Langile fina, nekaezina,
saiatua eta leiala;
aiurritz bizkor eta jatorra,
gogoz zintzo eta apala.
Umorerik ere ez zenuen falta
urnietar prestu jaukala;
Herriak esker onez beteta,
gogoan gorde zaitzala.*



Urnietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra;
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna,
Urnietak, 2017. otsailak 21



Eskelak,
heriotz oharrak,
urteurrenak
Aiurri astekarian
943 300 732
diseinua@aiurri.eus



EGAPE IKASTOLAREN 50. URTEURRENA

“Ikastola niretzat sentimendu bat da”

Aitziber Salinas kazetaria Egape ikastolako ikasle ohia da, eta harena izan da urteurreneko liburuxkaren erredakzio lanak egiteko ardura. Erronka berezia izan da beretzat, familiaren liburua egitea-

ren parekoa. Liburuxkaz, argazki erakusketaz eta ikastolaz hitz egiteko tartea eskaini dio Aiurri astekariari. Salinas bera Aiurri astekariko kazetari izandakoa da.

Udazkenean Egape ikastolaren historia biltzen duen liburuxka argitaratu zen, zerorrek idatzirikoa. Eta egun hauetan dozenaka argazki ikus daitezke Lekaion. Zer sentitu duzu hainbeste argazki batera ikusita?

Aitziber Salinas. Egia esan, liburuxkarekin denbora daramagu honetan lanean eta Facebook sare ezagunean argazki ugari ikusten ari gara, asko ikasleek eurek bidalitakoak. Besteak beste, bolatokiko argazkiak atera dira. Gogoan izan behar da gure garaian jolastokiari bolatokia deitzen geniola. Ikastolan zeudenak eta saretik iritsi zaizkigunak erakusketan ipini dira. Horieta asko, beraz, ikusita neuzkan. Horiek denak batera ikustean oroitzapen ugari etortzen zaizkit burura. Azken batean haurtzarora etortzen zaigu burura. Beste garai bat izan zen hura, baina orduko giroa eta garaia gogoan hartzeko aukera aparta izaten ari da.

Erronka berezia izan al da liburuxka egitea?

A.S. Bai, eta erronka handi samarra. Ikastolaren historia biltzea familiaren historia biltzearen parekoa izan da niretzat. Inplikazioa askoz handiagoa izaten da horrelakoetan. Presioa sentitu dut, ardura handiz jokatu nahi izan dudalako. Za-



Manu Marias, Aitziber Salinas, Itsaso Gomez eta Mikel Pagola liburuxkaren eta erakusketaren irekiera ekitaldian. Erakusketak izan duen arrakasta ikusita, argazkiak ostegun eta ostiral arratsaldean ikusgai izango dira Lekaio areto nagusian.

lanta handiekin ekin diot lanari historiaren pasarte guztiak sartu nahirik eta inor kanpoan ez uzteko ahalegin berezia eginez... Ardura handia izan da niretzat.

Informazioa biltzen aritzeak aditu bilakatu zaituela esan daiteke. 50 urteko historia luzeaz bereziki nabarmenduko zenukeen zerbait ba al duzu?

A.S. Ikasi, asko ikasi dut. Eta gauzak zer diren, niretzat harrigarriena ikastolak izan duen garapena ikustea da. Gaurko egunean, 2017an, ikastola no-

“Niretzat harrigarriena ikastolak izan duen garapena ikustea da. Ikastola modernoa da, erreferentziak alor askotan”

raino iritsi den ikusteak onerako harritu nau. 25 urte dira ikastola utzi nuenetik, eta orduko hartan genuen heziketa programa gaurko egunekoarekin alderatzen jarrita, mundu bat dago. Gaurko egunean puntako teknologia erabiltzen da, ikastola publikoa da eta

hori niretzat harrotasun handiko kontua da euskaraz ikaste-ko aukera edonori zabaltzen zaiolako.

Ikastola modernoa da, erreferentziak alor askotan. Niretzat harrotasun handiko kontua da hori.

Ikastola hitza entzun eta zer etortzen zaizu burura?

A.S. Usaina, lehenik eta behin. Plastilinen usaina, egur usaina. Espazioa, ondoren. Elizondo zinemaren azpialde hura. Eta baita beste zenbait sentimendu gehiago ere. Ikastola niretzat sentimendu bat da. Gu gara ikastola. Gure haurtzarora bertan dago.

Liburuxkaren tarte handi bat argazkiei eskainita dago. 50 urtetan zehar herrikide ugari igaro da bertatik. Aldizkariak hein handi batean Urnietako historia garaiak ere biltzen du.

A.S. Halaxe da. Erredakzio lana egiterakoan horren kontzientzia ginen, eta helburua orekari eustea izan da. Belau-naldi ezberdinetan lan handia, etengabea egin da eta askotan nahigabe garai bat beste baino gehiago nabarmentzen da. Liburuxkan protagonistak ikasurte guztietako ikasleak dira, eta horietako askok Urnietako historia garaiakidean garrantzia

“Ikastolaren historia biltzea familiaren historia biltzearen parekoa izan da niretzat. Inplikazioa askoz handiagoa izaten da horrelakoetan”

handikoak izan dira edota izaten ari dira. Eta, bestalde, beste zenbait etorkizuneko Urnietan protagonista bereziak izango dira. Egape ikastolaren etorkizuna lantzearekin batera, herriaren etorkizuna ere landuko dutelako.

Eta hori guztia 60ko hamarkadan ikastola aurrera ateratzeko ausardia izan zuten herrikide horiei esker. Ikastola martxan jarri eta euren burugogorkeriari eta ausardiari esker gaur egungo ikastola dugu.

Urnietar askok toki berezia egingo diote liburuxkari. Egilea zaren aldetik harrotasun hori izango duzu, ezta?

A.S. Gaur egun oraindik egingo dako lana arduraz ikusten dut. Lan handia dago, eta ezinezkoa izan da den-dena sartzea. Adibidez, 1979ko gela baten argazkia falta da. Argazki gehiago jasotzen ari gara orain. Denbora igarota pentsatzen dut liburua beste ikuspegi batekin ikusiko dudala.



Liburuxkaren eta argazki erakusketaren aurkezpen ekitaldia egin zuten aurreko ostegunean.



Urtez urte, belaunaldiz belaunaldi, urnietar asko ageri da argazki guztietan zehar.

KALDEREROAK ETA INAUTERIAK ANDOAINEN

Zartagin eta mailuen hotsek inauteria iragarri dute

Aurreko astean bi egunetan entzun ziren kaldereroen zartagin hotsak eta kantua Andoaingo kaleetan barrena, inauterien eta udaberriaren etorrera iragarri. Ostiral arratsaldean Ondarreta ikastetxe-

ko irakasle, ikasle eta gurasoak ibili ziren Hungariako ijitoen tankean jantzita. Larunbat ilunabarrean, Andoaingo kaldereroen konpartsa Kaletxikitik irten zen Gora Kaletxiki txarangak lagunduta.

Ondarretako ikastetxetik irten eta Zumea kalerainoko joan etorria egin ostean, ikastetxeko ikastokian bertan kanpaleku jendetsua ipini zuten, eta merienda jenez amaitu zuten jaia. Kaldereroen erreperitorio berezia Gora Kaletxiki txarangaren laguntzaz jarraitu zuten ibilbidean zehar.

Larunbat ilunabarrean, kaldereroek zahar egoitzan bisitaldia egin eta gero, Goikoplazara eraman zuten kanpaldia. Han, bi erreginak udaletxeko balkoira igo, eta umorez beteriko mintzaldia egin zuten. Urte osoa Hungarian igaro ostean berriro Andoainera etorri eta arreta eragin zieten zenbait kontu aipatu zituzten. Leizotz auzoko papertegi zaharrean papera ez baizik hautsa sortzen omen da egun, eta han gaztetxe berria jartzea proposatu zuten. La Salleko sutea bertako ikasleek eragin izanaren susmoa ere zabaldu zuten. Zumea plazan taberna gehiegi ikusi omen zituzten, eta bestalde, irudipena hartu zuten Gora Kaletxiki txarangako afariak egiteagatik ateratzen direla kalera musika jotzera. "Noizko Hungariako ijito bat Andoainen alkate?". Horixe galdetu zuten aurrerago. Bi erreginetako batek Andoaingo alkate izendatzen badute, besteak beste, San Martin elizako kanpai zaratatsua kendu, plazako frontoia estali eta larunbatero-larunbatero herri afaria antolatuko duela hitza eman zuten.

KALDEREROEN ERREGINAREN KOPLAK

Azkenik, bi bertso gaztelaniaz kantatu zituzten erreginek: *Venimos de Hungaria / con martillo y sartén / y cantaremos bertos / hasta que nos dejen. / Como estos vascuences / nada nos entienden, / sacaremos mas ruido / de lo que permiten.*



Joxe Mari Oiarzabalek zuzendu zuen Andoaingo kaldereroen konpartsa, zaharren egoitzatik hasita.



Ion Belokik eta Unai Ormaetxeak umore onez bete zuten erreginen papera.



Ondarreta ikastetxeko ikasleak ume-umetatik ohitzen dira kaldereroen festara.

De aquí a gobernar / solo estaros seguros, / no será un fracaso. / Y a lo que digamos / sí tendréis que hacer caso.



Ezinbestekoa da udaberriaren etorrera eta esnatzea irudikatzen duen artza Ondarretako ikastetxearen kaldereroen ekitaldian.



Ondarreta ikastetxeko guraso ugari hartu zuen parte Andoaingo konpartsa kale agerraldian.



Nekez irudika daiteke Andoaingo konpartsa Maria Angeles Ageitos, Koro Aizpurua eta Eurne Murilloren parte hartzerik gabe.

Mintzaldia amaiturik, kaldereroen konpartsa Goikoplazako kanpaldia desegin eta Kale

Nagusian behera abiatu zen, Zumea plazan berriro ere kanpaldia jartzeko asmoz.

Andoaingo gudua 2017 Bilerarako deialdia



Irailen egingo dute Andoaingo gudua edizio berria.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Andoaingo gudua antzezpena irailaren 16an egingo du. Dagoeneko Antolaketa Batzordea lanean jarri da, ez baitira gutxi lotu beharrekoak ikuskizuna antolatu ahal izateko, are gehiago kontuan harturik aurten Bazkunak hogeita bost urte beteko dituela **25 urte** ekin-tzez bete lelopean.

Irailko Andoaingo gudua iri begira, Bazkunak fusilari edo soldadu eta antzezleak behar ditu, eta ez gutxi. Horretarako, bilera deitu du martxoaren 2an, ostegunarekin, Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan:

- Martxoaren 2an, 19:00etan fusilari edo soldadu bezala atera nahi duten andoaindar guztiak azaldu behar dute, 16 urtetik gorakoak 60 urte bitarte.
- Martxoaren 2an 19:45etan antzele bezala parte hartu nahi dutenak, hemen ere 16 urtetik gorakoak 85 urte bitarte.

Martxoaren 2an elkartzeko den jendearen arabera erabakiko du talde antolatzaileak zer nolako ikuskizuna antola dezakeen; beraz, garrantzia

Fusilariaketa antzezleak behar dira Andoaingo gudurako. Horretarako Bazkunak bilera deitu du martxoaren 2an Bastero-eko ekitaldi aretoan

handikoa da andoaindarrek deialdi honi erantzutea, hiru-garrenez antolatzen den Andoaingo gudua baldintza egokietan antolatu ahal izateko.

Aurtengo ikuskizunean ere aldaketa eta berrikuntzak izango dira, baina horiek guztiak parte hartzen duten andoaindarren kopuruaren arabera izango dira.

Andoaingo gudua une honetan XIX. mendeko karlistaldiei buruz Euskal Herrian egiten den ikuskizun bakarra da, gure historia hurbilaren oroitzapena bizirik iraunarazi nahi duena. 600 eta 800 pertsona bitarte hil ziren borroka egun horietan –egun bakar batean 600dik gorat– eta Andoain oso suntsituta gelditu zen, Urnieta ia guztiz desagertu zen, eta Hernanik ere–ordurako liberalen menpe– berea hartu zuen.

Informazio gehiago: 656-782-521.

Atxiloketa ikusgarria



Igande gauean tren geltokiarren ondoan gizon batek labankada jaso zuen sabelaldean, eta Donostiako ospitale-eraman behar izan zuten. Erasoarekin zerikusia zutelakoan, Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu zituen Agustin

Leitzako etxebizitza batean. Barne saileko iturrien arabera, hiru gazteek ez zuten bere kabuz irten nahi izan eta Ertzaintzaren unitate bereziak parte hartu behar izan zuten. Hirurak atxilotu zituzten, azkenean.

Elkarrizketa Tolosako Mankomunitateko Joana Garciari

Sortzaile bereziengan jarri dute arreta

Udazkenean ekin zitzaion Andoain materia organikoa bereizteari eta prozesu horren hasieratik dinamizatzaile lanean aritu da **Tolosako Mankomunitateko Joana Garcia** gaztea. Lehen hilabeteetako emaitzak jaso eta gero, herritarrek dituzten zalantzen inguruan eta biltzaile berezien inguruan elkarrizketa eskaini dio Aiurri.

Lehen datuen arabera, txartela eta eskuorria duten herrikide guztiak ez dira oraindik materia organikoa bereizten hasi...

Joana Garcia. Hasiara batean herritar asko animatu zen txartela eta edukiontzia eskuratze-ara, baina horietako batzuk oraindik ez dira hondakin organikoa bereizten hasi. Etxean lekutxo bat topatu egin behar da, eta ohitura berriak hartzen hasi. Pauso bakarrera daude, baina batzuei pauso hori ematea kosta egiten ari zaie. Hala-ko batean hasiko dira, eta konturatuko dira aldaketa ez dela hainbesterako izango. Konturatuko dira ere organikoa dela sortzen dugun zaborraren kopuru handiena.

Hastea besterik ez da. Ohitura bilakatzen denean konturatuko dira oso erraza dela.

Egon daiteke herritar kopuru bat, bestalde, hobarien zain egon daitekeena organikoa bereizten hasteko. Ikusiko dugu, denborarekin.

Dagoeneko parte hartzen ari direnak, ondo ari dira. Zer adierazten dizute Mankomunitatetik?

J.G. Bai, emaitza oso onak lortzen ari dira. Oso gustura gaudu. Banatutako txartel kopuru adina erabiltzaile ez baditugu ere, argi dago errefusa kantitatea asko jaitsi dela.

Denbora tarte honetan lau proba ezberdin egin dira, edukiontzia aleatorioki ireki eta egokia ez den zaborra ikusteko. Eta lehen datuen arabera andoaindarrak bereizketa ondo egiten ari dira. Emaitza onak lortu ditugu.

Poltsak aipatzea ezinbestekoa da. Banatzen ari garen poltsatan bota behar da materia organikoa, plastikozkoan botatzen duenak jakin behar du zabor hori ez dela organikotzat hartzen. Poltsa hori ez delako konpostagarria. Beraz, Udalak banatzen dituen poltsa horiek erabili behar dira nahitaez. Hori da gaurko egunez



Mankomunitateko Joana Garcia udaletxe atarian, informazio bulegoaren ondoan.

dugun arazo bakarra. Baina, egia esanda, Andoaingo lehen datuak alor horretan ere oso onak izan dira.

Zeintzuk dira oraindik ere herritarren zalantza handienak?

J.G. Paperezko serbilletekin nola jokatu galdetzen digute maiz. Otorduetan nahikoa bustita baldin baude, olio edo tomatez adibidez, horiek edukiontzi organikora bota behar dira. Aldiz, ez badaude oso zikin, hobe da paperezko edukiontzira botatzea.

Edarien kortxoarena ere deigarria egiten zaio bati baino gehiagori. Sagardo edota ardo botilen kortxoak organikora bota behar dira.

Ostalari eta merkatarien artean indar berezia egin beharko dela adierazi zuten lehen datuen aurkezpen ekitaldian. Zer moduz zoazte zeregin horretan?

J.G. Merkatari askok hartu dute, eta beste batzuk interesik ez dutela erantzun digute. Eta horietako batzuk tamaina handiko organiko sortzaileak dira. Ezin ditugu behartu, oraingoz borondate kontua delako. Gure prozedura honakoa izan da: Txartela eskuratu duten merkatari eta ostalari guztiei banan bana deitu diegu, eta batzuei bisita egin diegu. Zaila egiten zaie edota zein zalantza dituzten galdetzeraz hurbildu gatazkie. Laguntza eskaintzen diegu, zalantzak dituzten kasuetan. Dagoeneko parte hartzen ari diren asko gustura daude. Ostalaritzan gehiago kosta egiten

“Lehen datuen arabera andoaindarrak bereizketa ondo egiten ari dira. Emaitza onak lortu ditugu”

da, lan asko dagoenean nahigabe zabor guztia nahastu egiten delako. Kasu horietan edukiontzi berriari tarte egitearekin batera joera berriak barneratu beharko lituzkete. Hori litzateke idealena. Tabernetan, esaterako, sukaldean sortzen da organiko gehien. Toki berezia hartu beharko luke edukiontzi organikoak.

Supermerkatuetan, bestalde, fruta antolatzen dutenek goizeko lehen orduan ukituta edo egoera txarrean dagoen fruta hori edukiontzi marroira sartzeko ohitura hartu beharko lukete. Edukiontzi bat baino gehiago edukitzeko aukera eskaintzen ari gara kasu horietan. Goizean goizeko lan horietan organikoa bereizten hastea aholkatzen diet. Hasteko modu bat da, eta denborarekin egun osoko jardueran aplikatzen hasiko dira.

Elkarte gastronomiko batzuk ere animatzen hasi dira. Beraz, egindako deiak eta bisitaldiak fruituak ematen hasi dira. Hasieran nioen bezala, jarrera kontua da. Otsaileko emaitzak esanguratsuak izango dira, edukiontzi guztien itxurak berriro ditugulako. Askoz hobeto ikusiko da sortzaile berezien biltzeta, alegia ostalari eta supermerkatuena, zer moduz doan.

SARE SOZIALAK

“Andoain paseando” Facebook orrialdea

Internet sarean Facebook atari ezagunean eguneroko erabiltzaile direnentzat aski ezaguna egin da “Andoain paseando” izeneko orrialdea. Atzoko Andoain eta andoaindarren argazkiak agertzen

dituen guneak jarraitzaile ugari ditu. Egunotan, esaterako, Franco hil osteko lehen inauterietako argazkiak ikus daitezke. Aiurri aste-kariak gunearen kudeatzaile den Ibon Lekuonarekin hitz egin du.

Noiz ireki zenuen orria eta zenbat argazki sartu dituzu dagoeneko?

Ibon Lekuona. 2015eko urritik dago martxan eta harrezkero saiatu naiz egunero-egunero argazki berri bat ikusgai jartzen. 650 argazkitik gora zintzilikatu ditut dagoeneko. Egunero 30-40 pertsona sartu ohi dira orrialdera eta 1700etik gora dira “Atsegin dut” klikatu dutenak. Horiez gain, jakin badakit erabiltzaile gehiago badirela.

Zein da zure asmoa?

I.L. Argazkizalea naiz, baita Andoingo herriaren historia zalea ere, eta hasieratik gure herriaren eta bere herritarren historia kontatzen duten irudiak jakitera emateko gogoia izan dut. Ez nuen formularekin asmatzen, eta halako batean “San Sebastian desaparecida” orrialdea ikusteak ideia eman zidan. Nire kezka eduki nituen hastapenean, zein hizkuntzatan idatzi, zein gai aukeratu eta zein ez... Azkenean, nire gogoari egin nion kasu. Ez dakit asmatu dudana, baina beste era batera egin behar dela uste badu baten batek, ireki dezala bere orrialdea. Denok irtengo gara irabazten.

Andoingo oroimen historikoa berreskuratzeko modu bat izan daiteke zurea...

I.L. Iruditzen zait argazkiak ondo daudela zainduta etxeetan edota artxiboetan, baina pena ematen dit ikustea nola dauden gordeta, jendearen begietatik urrun. Argazki batek bere-berezko funtzioa galtzen baitu horrela. Argazkia, are gehiago zaharra bada, publikoarentzat ikusgai egotea da idealena. Gozamen pertsonala eragiten dute, eta gainera iruditzen zait neurri batean edo bestean geure historia berreskuratzen laguntzen duela.

Zein da zure orriaren sekretua horrenbeste jarraitzaile edukitzeko?

I.L. Ez dakit hainbeste jarraitzaile ote dituen, baina tira. Iruditzen zait denok edo argazki zaharrak ikustea ia denok gogoko dugula; orduak igaro genitzake argazki bati begira, eta batez ere gure iragana gogorarazten digutenean, edota jende ezaguna agertzen denean. Erreturatu zahar horiei buruzko ahalik eta informazio gehiena jartzen saiatzen naiz, egilea, noiz, non, nortzuk ageri diren... Nolanahi ere nire mugak dauzkat, eta



Bastero etxea 1990eko hamarkadan, bota aurreko irudian. Argazkian Emilio Lekuona ageri da, eskuak patrikatan, argazkilariai begira. Argazkia ikusgai dago “Andoain paseando” Facebook orrialdean.

“Argazkia, are gehiago zaharra bada, publikoarentzat ikusgai egotea da idealena”

“Makina bat bideo grabaketa dauzkat. Egunen batean horiekin zer egin erabakiko dut”

maiz jarraitzaileak dira komentarioak eranstera datozenak datu berriak sartuz, agertzen den jendea identifikatuz... Jendearen parte hartzea guztiz aberasgarria izaten da.

Zein dira zure iturriak?

I.L. Nik ateratakoak dira argazki batzuk, 1990etik aurrerakoak batez ere; milaka batzuk izango ditut bilduta. Guregipuz-

koa eta Kutxateka webgunetik eta lortu izan dut bat edo beste, tarteka. Nolanahi ere, herriko jendea da niretzat iturririk oparoena. Ezagutzen dudana jendearen eskian ibiltzen natzaio. Argi uzten diet utzitako agiria eskaneatu eta hurrengo egunean itzuliko diedala eta niretzat obligazioa dela beti-beti argitaratzen diren argazkien ondoan bere egilea edo lagatzailea aipatzea. Gehienetan eskuza-



1970eko hamarkadaren amaiera aldera inauteriki ospatzen hasi ziren Andoain. Argazkian, Olagain auzoko hainbat bizilagun. Batzuk mozarrotuta eta besteak ikusmiran. Lekuonak egunotan sare sozialean ipini du.

baltasunez uzten dizkidate, nahiz eta baltuetan kosta egiten zaien, adin nagusi-koei batez ere.

Argazkiez gain, makina bat bideo grabaketa dauzkat nik egindakoak; familia, eta batez ere Andoingo kale, eraikuntza eta lekuen erreferentzia egiten dute eta egunen batean horiekin zer egin erabakiko dut.

Lan handia dago argitaratzen duzun argazki bakoitzaren atzean.

I.L. Orduak eta orduak eskaintzen dizkiot orrialdeari. Argazkia lortzea, bere inguruko xehetasunak biltzea... Guzti horrez gain, buruhauste handiak, gehiegizkoak, eragiten dizkit argazki bakoitzak argitaratu edo ez erabakitzeak, ez bainuke inor mindu nahi.

Izango duzu orain arte bitxia egin zaizun irudiren bat-edo aipatzeko modukoa, harri-dura sortu dizulako...

I.L. Badira batzuk, bai. Adibidez, 1921eko irudi bat zeinean Sanjuanetan toreroak agertzen diren. Ezin nuen sinetsi Goikoplazan ibili izan zirenik inoiz toretzen! Bada beste bat, XIX. mende bukarakoa: estazio zaharrean antigualeko jantziak daramatzen jendea eta zaldia karro bati lotuta ageri dira bertan. Harribitxia da benetan argazki hori, informazio ugari emateaz gain, kristalezko plaka batean errebelatutakoa delako, eta bisore estereoskopiko batekin hiru dimentsiotan bezala ikus daitekeelako.

Bastero zaharra izan zen zintzilikatu zenuen lehenbiziko argazkia, eta bera da orriaren irudi ofiziala. Ba al dauka esanahi berezirik zuretzat?

I.L. Hortxe jaio nintzen ni, eta hortxe bizi izan zen Lekuona Barreras familia. Bere garaian, gure amaren ama Asteasutik etorri zen Andoainera, eta bere aita Karrantzatik. 50eko hamarkadan etxe hori erosi egin zuten, eta Euskalduna taberna ireki bertan. Etxe horren azpialdean, denda ugari egon zen irekita. Egia esan, inguru horretan jaio eta hezi nintzen; garai batean Andoainen ez ginen mugitzen orain bezala alde batetik bestera, nor bere espazio txikia zeukan bizimodu egiteko; gurea Eskola Kalea eta inguru hori izan zen. Horrexegatik, eremu horretako argazkiak topatzeko desiratzen egoten naiz.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Justizia ez da justizia

Hitz joko honekin esan nahi dudana berehala ulertu duzue. Esan nahi dudana zera da, justizia ez dela denontzat berdina. Kasuari Noos deitu zioten zeinean beste askoren artean Urdangarin eta Kristina infanta epaitu dituzten. Bati sei urteko kartzela zigorra eta isun ekonomikoa ezarri dizkiote. Kristina, aldiz, aske utzi dute.

Herri edota estatu batean, bizikidetzaren orekatua izan dadin, justizia elementu garrantzitsua da, botere legegilea eta horiek denak aurrera eramango dituen gobernuaren beza garrantzitsua. Baina justiziak benetakoa izan nahi badu, ezinbestekoa da herriaren guztientzat berdina izatea. Ez dadila egon Gobernuaren menpe, hots, izan dadila independentea. Bizikidetzaren garrantzitsuak dira legeak, baina justiziak lege horiek egoki aplikatzen jakin behar du, edonork dela epaitua. Denok dakigu, eta ez da lege aditua izan behar justizia ez dela denontzat berdina. Horregatik "Justizia ez da justizia" zutabe honen goiburua.

Epaiaketa kasura itzuliz, denok jabetu ginen kasuaren ustelkeriaz. Herria jabetu zen Iñakik eta Erregearen alabak bere estatusa erabili zutela diru publikoak xurgatzeko. Eta ondotoxo aberastu ziren. Infanteria ez zekien bere senarraren negozioen berri eta horrela izan zen ustelkeriak gainezka egin zuen arte. Sare luze-zabala eraiki zuten dirua erraz lortu eta, egoerari jarraiki, errege gisa bizitzeko. Halere, aldamiaoa hasi zen zatitzen eta piezaz pieza askatuz joan zen. Erori arte.

Luzea izan da Castro epaiaketa eraman duen kasua. Batzuk diote meritu handia duela erregearen alaba eta bere senarra epaituen aulkira eramateak. Bost urte eman ditu lan horretan eta eragozpen ugari gainditu behar izan du Infanteria berari galdeketa egiteko. Honek, erantzun txarrek, baina dirudienez eraginkorrak eman zituen: Senarrak zer egiten zuen ez zekiela, ez dela oroitzen, berak senarrarengan konfiantza osoa zuela... Epaiak horrela igaro zen

"Edonork ikus dezake justizia ez dela denontzat berdina. Izan ere, herri honetan askotxo dakigu epaiketez, atxilotuez eta askoz gutxiagotatik kartzelan urte asko eman dituzten pertsonen kasuez"

eta fiskaltzak azkenean emandako kondena baina handiagoak eskatu zuen. Iritsi da sententzia, hiru magistratuek idatzitakoa eta herri xumeak harrituta jaso du sententzia.

Alderdi juridikoetan sartu gabe, ni behintzat ez bainaiz aditua, edonork ikus dezake justizia ez dela denontzat berdina. Izan ere, herri honetan askotxo dakigu epaiketez, atxilotuez eta askoz gutxiagotatik kartzelan urte asko eman dituzten pertsonen kasuez.

Historia luzea da, baina azken aldiaren erabakia gure zentzuetan kasu, oraindik epaitu gabeak eta terroristatzat hartu eta terrorista bailiran epaituko dituztenak. Altsuko kasuaz ari naiz. Taberna batean Guardia Zibilarekin liskarra izateagatik. Hainbat herritar eta agintarik kasua Iruñeko epaitegian kokatu behar dela eskatu dute. Epaiak, entzungor jokatuz, terroristatzat epaituak izan daitezela eskatu du. Kartzelan jarraitzen dute horietako askok. Justizia alorrean asko dago oraindik egiteko, justizia denontzat berdina izan dadin.

Noos auziko epaiaketa kartzela zapalduko duten ez dago garbi. Eta kasua eraman duen epailea harrituta dago zigortuak jasotako kondena txikiarekin delituak hain larriak izan zirenean. Nago espetxe bereziak eskainiko dizkietela, tratu eta baldintza berezietan. Kondenatuak, gainera, Gorenera jotzeko aukera dute eta Gorenak erabaki bitartean, fidantza-pana aske gera daitezke. Dena da desproporzioa.

Justizia, hitzez eta edukiz, gainbehera dago eta oraingoz, horrela jarraituko duela nago. Justizia ez da berdina denontzat!!

Hondakinen bilketaren bat-bateko balorazioa

Postontzia Andoaingo Eguzki

Prentsan ikusi dugu Andoaingo Udala osatzen duten alderdiek, hondakin bilketaren inguruan eta bereziki urrian martxan jarri zen 5. edukiontzaren inguruan egin duten balorazioa onartuta, balorazio sakonago bat egiteko datu asko falta direla ikusita ere, Eguzkitik bat-bateko balorazioa egin nahi izan dugu.

Lehenik eta behin, zoriondu behar ditugu, 5. edukiontzia erabiltzen ari diren andoaindar guztiak, hala nola auzo konposta edo etxean konposta egiten duten guztiak ere. Andoaingo bizilagun arduratsuek bere lan eredugarri horretan jarrai dezatela eta ahal badute sakon dezatela eskatu ere eskatuko diegu.

Bosgarren edukiontzia erabiltzen ondorioz, gaikako bilketa %29,76-tik %45,6-ra igaro da. Zalantzarik gabe albiste ona da baina aurreikusitakotik urrun geratzen da,

izan ere 2014an Hondakinen Mahaian 2016rako helburutzat %60ra iristea jarri baike nuen. Beraz, gure balorazioa honakoa da:

- Erabaki hori hartu genuenetik (Hondakinen Mahaian Eguzki ere parte hartzen baitu, beste eragile batzuekin batera), bi urte eta erdi igaro dira eta uste dugu neurriak mantso eta irrika gutxiarekin hartzen ari direla Udalean. Izan ere, Gipuzkoan ia azkenak izan gara materia organikoa era berezian biltzen.
- Andoaingo Udaleko alderdiek elkarrekin egiten duten balorazioa ere eskasa da.
- Hobetu behar dela esaten dute, baina ez dute zehazten zein neurri aurreikusten duten, diru gehiago gastatu behar duen Udalak sentsibilizazio kanpainatan... Ez dakigu zerbait egiteko asmorik ba ote duten baina proposatu, ez dute ezer proposatzen.
- Adibide onak nahi badituzte hor dituzte Debagoienako

herriak, eskualdean %80 bueltan daude birziklatze tasan, herri gehienetan 5. edukiontzia erabiliz.

- Eta ez dute baloraziorik egiten txipak izan dituen arazoak, txartel faltaz, hobariez, auzo konpostaren emaitzez...

Gure ustez, lehen birziklatzen zutenak modu egokian batu dira organikoaren bereizketara, ordea orain arte birziklatzen ez zutenak, bosgarren edukiontzia ez du lortu bide onera ekartzea eta batere birziklatu gabe jarraitzen dute. Askotan esan dugun moduan azken hauek, batere birziklatzen ez dutenak direla arazoaren parte garrantzitsua, ez dira neurri berrietara egokitzen, ia doan bere borondatez kutsatzen jarraitzen dute. Proposatzen dugu bosgarren edukiontzia ezarpenetik sei hilabete igarotakoan Hondakinen Mahaia deitu eta beharrezkoa bada formula berriak aztertu eta gutxieneko %60 horretara iristeko bide orria eztabaidatu eta adostea, gutxieneko konpromiso hori eskatzen diegu alderdiei.

Elkarbizi taldea 2017an

Postontzia Elkarbizi taldea

Elkarbizi taldearen ibillean, prestatutzari zuzendutako hirugarren programaren azalpen publikoa egin nahi dugu. Bizikidetzaren eraikitze dagokigun honi ahal jartzen ari gara. Gure arteko eredu onenak azaldu nahi ditugu, ahaztu gabe euskal herritarro egindako kalte guztia erakustea ere eraikigarria izan daitekeela nahi dugun bizikidetzaren horren oinarriak sendo jartzeko.

Dagoeneko, lan hori garatzen ari gara bailarako Elkarbizi taldekook. Gure lehenengo urtean, elkarbizitzaren aldeko jardunaldiak eta ikastaroak antolatu genituen. Iaz, berriz, 8 ikastaro burutu genituen, gai ezberdinak jorratuz. Ikastaroak bailarako herri guztietan egin genituen.

2016an egindako ekitaldietan, bizikidetzaren sozio-politikorako oso garrantzitsuak diren gaiak jorratu genituen. Memoria eta historia, indarkeriaren kontakizuna osatzeko eta transmititzeko baliagarritasunik baduten aztertu genuen. Hurrengoetan ondoko hauek izan genituen az-

tergai: justiziak edo komunikabideek bete dezaketen papera elkarbizitzaren hobekuntzan; euskal literaturak gaztaren aurrean eman duen ikuspegia; memoria eta artearen bidezko sozializazioa; autokritika produktio audiobisualean... edo aske eta seguru bizitzeko ezinbesteko ditugun armagabeteak... Eta azkena, Agirre lehendakariaren eredu humanistari begiratu diegu, egungo elkarbizitzarentzat baliagarria denaren ustean.

Aurtengo programa, 2017koa, martxoan hasiko dugu eta urria bitarte luzatuko da. Lehenengo ikastaroan, gure arteko eredu humanistak ezagutzeko lanarekin jarraituz, Arizmendiarieta zenaren bidez jardungo dugu, Arrasaten 1941tik 1975 urtea bitarte egin zuen lana aztertuz. Elkarlanaren paradigma bizikidetzarentzat oso onuragarria delakoan baikaude.

Hurrengo hiru ikastaroetan, tormentuaren memoria osoaren alde agertu nahi dugu. Estatuen zerbitzariak egindako torturak eta tratu txarren inguruan Euskal Gobernuaren ekimenez ikertu dena ezagutu ahal izango

dugu. Baita zerga iraultzaileak edo jazarpen indarkeriak egindako kaltea ere aztertuko dugu. Ezin ditugu ezagutu gabe utzi milaka euskal herritarrek sufritu dituzten indarkeriaren adierazpen kaltegarri hauek. Hauen memoria zabaltzea ere beharrezkoa baita.

Terrorismoa eta bortxakerien aurrean euskal gizarteak hartu duen jarreraz eztabaida ugari ari dira pizten. Ez dugu horietatik ihesi egin nahi. Horregatik, gaiaren inguruan euskal unibertsitateak egindako ikerketak ezagutzera eman nahi ditugu, irailan egin nahi dugun ikastaro batean. Eta, aurtengo programa amaitzeko, bizikidetzaren sendotzak espiritualitate jakin bat eskatzen ote duen galdegingo diegu gaiak hitz egiteko gonbidatuko ditugun adituei.

Lehen hitzordua:

"Arizmendiarieta eta elkar-lana, gizarte zatiaketa aurre eginez (Arrasaten egindako lana 1941tik 1975ra bitarte)". Auto-erantzukizuna, lana eta elkar-lana, bizikidetzaren gakoak. Hizlaria: Pako Etxebeste. Martxoak 8. Astigarraga.



KIROL ALBISTEAK

Kirola aire zabalean eta taldean egiteko saio berria martxan

Emakume korrikalariak



Rosi Martinez, Amaia Elizondo, Marian Etxezarreta, Azu Bonafau, Raquel Lopez eta Nagore Rebollo. Makurtuta: Junkal Korrotxano, Miren Uranga, Ester Arizmendi, Laura Agudo eta Izaskun Jauregi irakaslea.

“Emakume korrikalaria!” ekimena bigarren denboraldia betetzen ari da. Kirol ekintza horiaz jarri zuten martxan Andoingo Udaleko berdintasun sailetik eta kiroldegiko kirol zerbitzuetatik, emakumeei kirola kalean eta modu osasungarri eta dibertigarrian egiteko aukera eman asmoz. Kirola tarteka edo eta inoiz egiten ez duten 35 urtetik gorako emakumeentzat bideratuta dago. Bi talde osatu dira aurtengoan; astean egun batean biltzen da bat, bi eguntan bigarrena.

Arrakastatsua izaten ari da ekimena, eta pozez zorutzen dabilta aurtengo denboraldian parte hartzen ari diren emakumeak. **Junkal Korrotxano, Azu Bonafau eta Laura Agudo**, esatera baterako, errepikatzen ari dira ikastaroarekin, onurak besterik ez baitzikote topatzen. Arrazoiak bata bestearen atzetik azaldu ditu Junkalek: “Guk nahiago dugu gimnasio batean baino kalean kirola egin eta horretarako aukera onena lasterka ibiltzea da. Bestetik, arduraz betetako bizimodua bizi dugu, izan lana, izan familia..., eta nahiko kirol trinkoa da, ez dizu denbora askorik kentzen. Eta gainera, kirol merkea da, nahikoa da oinetako eta arropa egokia janztea; ez dizu ez kirol tresneriarik ez eta leku egokiturik eskatzen”. Kirola egiteko lekua aipatzen hasita, Andoainen pribilegiatuak garela adierazi du

“Nahiago dugu gimnasio batean baino kalean kirola egin eta horretarako aukera onena laisterka ibiltzea da”

Junkal Korrotxano

Junkalek: “Noranahi joan zaitezke aldaparik ikusi gabe, Urnieta aldera, Trentxikira... Eta oraindik orain Sorabillatik Adunara ireki den bide gorriarekin, aukerak zabaldu egin zaizkigu”.

TALDE GIROAREN ONURAK

“Emakume korrikalaria!” ekimenak korrika egitearen meseak deskubritzen laguntzeaz gain, kirol hori talde giroan egitea ahalbidetu die, eta horixe azpimarratu nahi izan du Azuk: “elkarrekin abiatzen gara noranahi, eta bidean bi gauza egiten ditugu batera: gorputza astindu eta berriketa. Lehenbizikoa bezain garrantzitsua da bigarrena; honetaz eta hartaz aritzen gara hizketan. Arnas-estuka hasten bagara, orduan erritmoa jaisten dugu. Ez baitugu isilik ibili nahi. Argi daukagu lasterka taldean egitea gorputzarentzat bezainbat buruarentzat dela komenigarria; esan daiteke terapia bikoitza ere badela guretzat, azken batean”.

Kirolen bat edo lasterka inoiz egin ez duenarentzat bat-batean oinak bizi-bizi mugitzen has-teak min hartzeak eta lesioak

“Bi gauza egiten ditugu batera: gorputza astindu eta berriketa. Lehenbizikoa bezain garrantzitsua da bigarrena”

Azu Bonafau

eragin ditzake. Junkalek, Azuk eta Laurak fase hori gainditu dutela uste dute, “gorputza ohitu dugu kirola egitera; are gehiago, pozik gara aurreko batean ordubetetik gora gelditu gabe jardutea lortu genuelako”.


Laurak zehaztu duenez, garrantzitsua ikusten dute gutxieneko diziplinari eta jarraikotasunari eustea, bizitzako gainerrako jardunetan bezala. “Ekimenarekin astean behin gertatzen gara, baina ohartu gara ez dela nahikoa gorputza forman mantentzeko, eta horrexegatik, batzuetan, beste tarterik ez daukagunean, goizeko seiretan geratzen gara saioa egiteko, lantokira joan aurretik”.

Izaskun Jauregi irakaslea egiten ari den lana ere goraiatu dute: “Oso pertsona egokia da emakumeak martxan jartzeko, badaki laguntzaile izaten mundu berri batean murgildu denarentzat. Kirol honen gutxieneko ezagupenak behar bezala azaltzen dizkigu, badaki gutako bakoitzak zer eman dezakeen, noiz eta nola egin luzaketak, ze bestelako ariketa egin eta zenbaterako intentsitatearekin...”.

Emaitza bikainak neguko Gipuzkoako sarian

Joan zen larunbatean Legazpin igeriketako Neguko Gipuzkoako IX. Saria ospatu zen eta bertan **Yaiza Martinez** andoaindarrak brontzea eskuratu zuen 50 bular proban eta **Jon del Rio** urnietarrak, berriz, zilarra 50 librean.

Del Riok goizean 200 metro estilo librean proban laugarren postuan amaitu zuen. Yaiza Martinezek aldiz, 50 metro bular estiloan hirugarren postua lortu zuen, brontzezko domina eskuratu. Arratsaldeko jardunaldian, Yaiza zein Jon 50 metro librean bikain aritu ziren. Yaizak seigarren postua lortu zuen



bere denbora ia 5 segunduan jaitsiz! Jon ere ederki aritu zen. Goizean bezala, ezin izan zuen bere denbora hobetu, baina bere mailaren erakusle zilarrezko dominarekin etxeratu zen.

Senior mailako eskubaloia

SENIOR MUTILAK:

Saieko 27-37 Urnieta

Leizaran 27-30 Ereintza

SAILKAPENA. 14. jardunaldia:

1. Ordizia	29
2. Urnieta	24
5. Leizaran	18

DATORRENA, 17. jardunaldia:

Urnieta-Ordizia

Martxoak 5

Urnieta Balerdi Harategiko mutilek bolada onean jarraitzen dute, 2017ko orain arte jokaturako partida guztiak irabaziz. Ligan atsedean jardunaldia izango dute asteburuan, baina adizeren eta urnietarren hurrengo partida Ordizia liderraren aurka izango da. Urnietan bertan izango da ligako bi talde indartsuenen arteko lehia. Ikustekoa izango da.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Ganbara JubM 59-69 ZAST

Ganbara SenM 69-77 Lizeo

Hernani 53-41 Ganbara KadM

Partidak Allurralden:

Ganbara KadM-Soraluze.

Otsailak 25, larunbata. 09:00.

Hiru urnietar GRAVNI

Txema Gonzalezek bi bikote prestatu zituen Gipuzkoako trinkete txapelketarako eta biak finalaurrekoa jokatze saillatu dira.

Alde batetik, jubenil mailako **Aitor Aldunberri** eta **Imanol Odriozola**. Eta bestetik, senior mailako **Julen Loitegi** eta **Eñaut Esnaola**. Odriozola, Loitegi eta Esnaola pilotariak

gainera Gipuzkoa ordezkatzeko ari-tuko dira GRAVNI txapelketa ospetsuan.

TRINKETEA, FINALAURREKOAK

Eskuz binaka, Gipuzkoako txapelketa Otsailak 25, larunbata. 15:15.

Urnieta JubM-Azkoitia 1

Urnieta SenM-Behar Zana 1

Erregional mailako futbola

21. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Sto Tomas Lizeoa 2-0 Euskalduna

Urnieta 1-2 Dunboa

SAILKAPENA. 19. jardunaldia:

1. Añorga	48
5. Euskalduna	33
10. Urnieta	25

21. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Trintxerpe-Urnieta

Euskalduna-Hernani

Asteburu honetan partidarik ez dago.

Inauterien ostean ligako azken txanpa iritsiko da.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzkano

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Uniatzako

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 23TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "Los del tunel"
Otsailak 25. 19:30-22:00.
Otsailak 26. 19:30.
Otsailak 27. 19:30-22:00.

Jardunaldiak

Urnietan

- Aranzadiko **Pako Etxeberria** forentsearen hitzaldia.
19:00 Lekaio.
Otsailak 23, osteguna.
- "La mirada del otro" antzez-lana. Ondoren, solasaldia.
19:00 Sarobe.
Otsailak 25, larunbata.

Ikuskizuna

Urnietan

- "Kaput" familia ikuskizuna.
17:30 Sarobe.
Otsailak 26, igandea.

Dantza

Urnietan

- "Hormek diote on stage" dantza ikuskizuna.
19:30 Sarobe.
Martxoak 11, larunbata.

Lehiaketa

Andoain

- Inauterietako argazki lehiaketa. 250 euroko saria.
Epea: Martxoak 6.
Informazioa: Bastero.

Inauteriak

Andoain, Urnietan

- **Otsailak 23, osteguna:**
15:15 Festa Goikoplazan, ikasleen parte hartzearekin.
16:15 Dantza jaia Gora Kalletxiki txarangaren parte hartzearekin.
17:30-20:00 Beldurraren etxea Gazte Lokalean.
18:00 Maskara lehiaketa, sari banaketa ekitaldia Urigainen. Maskarak ikusgai izango dira han bertan urtarilaren 23an, 24an eta 27an.
- **Otsailak 24, ostirala:**
17:30 Mozorro festa Gazte Lokalean.
18:00 Kontzertu bufoa Urigainen.
- **Otsailak 25, larunbata:**
11:30 Buruhandi eta erraldioen konpartsaren irteera.
12:00 Konpartsen kalejira eta Soinuak eskolako ikasleen kalejira.
17:00 Konpartsa eta mozorro desfilea Txitibar plazatik hasita.
23:00-03:00 Disko festa Nafarroa plazan.
- **Otsailak 26, igandea:**
12:00 Inauteri desfilea.
17:30 "A ze nolako banda parranda" haur festa Nafarroa plazan.

Urnietan

- **Otsailak 25, larunbata:**
Egun osoko ospakizuna. Adi, Idiazabal kalea 16:30etik 22:00etara itxita: 12:00 Trikipoteoa Idiazabal kalean hasita.
14:30 Bazkaria frontoian. Ondoren bertsolariak eta Lear taldea.
16:00 Salesiarretatik jaitsiera San Joan plazara.
16:30 Talde guztien topaketa plazan.
16:45 Plazatik Idiazabal kalera desfilearen hasiera.
18:00-20:30 Salesiarren jaialdia ikastetxean.
20:00 Mozorro lehiaketa Zubitxo plazan.

Farmaziak

Andoain

- **Arzallus.** Gaez: Etxebeste. Otsailak 25 eta 26.

Urnietan

- **Tena.** Gaez: Etxebeste. Otsailak 25 eta 26.

Erakusketa

Urnietan, Lekaio

- Egape ikastolaren urteurreneko erakusketa zabalik:
Otsailak 23, osteguna: 17:00-18:00.
Otsailak 24, ostirala: 17:00-19:00.


ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Ane Rapun Perezek otsailaren 25ean 11 urte beteko ditu. Inauterietan jai eta inauterietan ospatu. Etxeko marxosari zorionak! Muxuak.
ANDOAIN

ZORIONAK



Oso erraza da. Emaila: diseinua@aiurri.eus
Whatsappa: 619 163 537

Segurtasun eta erabilera araudi berrietara egokitua



Joan zen asteazkenean azken hilabeteotan egindako eraberritze lanen aurkezpen ekitaldia egin zuten. Egape ikastolan bertara Udala ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bana hurbildu zen, eta Egape ikastolako arduradunen azalpenak lehen eskutik jaso zituzten. Lan handiena gimnasioari loturik dago, eta bertan egin zituzten aurkezpen lanak. Horrez gain, ikastolaren atarian estalkia ipini dute eguraldi txarra denerako guraso eta haurrentzat baliagarri izan dadin. Bestalde, beste zenbait eraldaketa egin dituzte irisgarritasun, suteekiko segurtasun eta erabilerarako segurtasun araudi berrietara egokitzeko. Aldagelak egin

dituzte, pertsona elbarri-tuentzat egokitutakoa. Eta horrez gain sukaldeko eta jangelako langileentzat aldagela egokitu dute.

Asteazkeneko ekitaldian ordezkari ezberdinek instituzioen arteko lankidetzaren barmendu zuten. Egape ikastolako eskertza adierazi zien.

Urnietako Udaletik **Mikel Pagola**, **Mikel Izagirre** eta **Consuelo Frutos** hiru alderdiak hurbildu ziren. Eta Hezkuntzako delegaritzatik **Gema Gonzalez de Txabarri** Gipuzkoako Hezkuntza delegatua, **Nekane Agirre** Hezkuntza proiektuko zuzendaria eta **Juanjo Agirrezabal** Hezkuntza berrietzeko zuzendaria.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: MARTXOAK 2, OSTEGUNA

Kantu
liburuxka
2017
AIURRI

Txotx'17

R. ZABALA 943 690 774 Aduna
LARRE-GAIN 943 555 846 Ereñozu-Hernani
OIANUME 943 556 683 Urnietan
GAZTAÑAGA 943 591 968 Andoain
SARASOLA 943 690 283 Asteasu

2017ko egutegi gehiago nahi? deitu: 943 300 732

